


Astekaria

# BARREN

elgoi

## Ganadu feria ikusgarria



IRAKASLE

ELKARTEA

# ZEZENBIDE



auto-eskola

San Frantzisko 43,  
☎ 74 27 20

## 3 LAU HANKATAN

"Baina gure garaian (...) gauzek beltz edo txuri izan behar dute." **Alberto Ansuategi.**

## 6 ERREPORTAIA: PLAZA TXIKIA EUSKADIKO LIMOUSINEN BILGUNE

Feriaren ikusgarritasuna eta antolaketa ezinhobeak, eguna ondo baino hobeto igarotzeko aukera emna zuten.

## 8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ZEIN ARRAZATAKO BEHIAK HAZI?

**Asier Rubio:** "Gero eta ganaduzale gehiagok, Euskadin pirenaika arrazako behia aukeratzen du".

**Alfonso Gonzalez:** "Segun non eta zein baldintzatan, erantzuna ezberdina izango da".

## 12 BERBETAN: Mari karmen azpiazu

"MEDIKUNTZAREN AURRERAPENAK TRANSPLANTEEN BIDETIK"

## 14 KIROLA

GAIA: FUTBITO TXAPELKETA

ELKARRIZKETA: **Ana Raña**

## 16 ELKARTEETATIK BUELTAN

INAZIO BEREZIARTU MUSIKESKOLA: MUSIKA ZALETASUNA PIZTEN

## 17 KULTURA

TXILLIDAR ANAIK EZIK GRABATZAILE GUZTIK IZAN ZIREN INAGURAZIOAN

TXANDAK

### FARMAZIAK:

6, larunbata: **BIDASOLO**

7, igandea: **BIDASOLO**

8, astelehena: **YUDEGO**

9, asteartea: **YUDEGO**

10, asteazkena: **YUDEGO**

11, osteguna: **YUDEGO**

12, ostirala: **ORMAZABAL**

### OKINDEGIAK:

7, igandea: **BOUTIQUE DEL PAN**



## PREMIAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak .....741155

Txanda hartzeko .....743354

Alkoholiko Anonimoak .....740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria .....743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua 7410 08

Odol Emaileen elkarte.....741190

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....740442

PESA (Eibar) .....112131

Taxi Geltokia .....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Mendaroko Udala .....756100

Ongizate zerbitzua .....743736

Udaletxea .....741050

Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142

IMI .....741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea .....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .....740296

Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32

Institutua .....74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**Argitaratzailea**

Elgoibarko Izarra

**Laguntzailea**

Elgoibarko Udala

**Zuzendaria**

Alberto Agirreazaldeg

**Hizkuntza Arduraduna**

Anjel Ugarteburu

**Erredakzio kontseilua**

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,  
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

**Kazetaria**

Ainhoa Lodoso

**Maketatzailea**

Maite Rementeria

**Publizitatea**

Nekane Etxaniz

**Administrazioa**

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

**Kolaboratzaileak**

Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansoa, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Ina Garagarza, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, Nerea Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta

**Banaketa arduradunak**

Imanol Larrañaga

Inaxio Garmendia

**Inprimategia**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)


**Tirada:**3.000 ale

**Lege gordailua:**SS-1.038/92

**ISSN:**1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**L**AU HANKATAN



Alberto Ansuategi

# Beltz edo zuri


**B**adira zenbait hitz beraien esanahia ezagututa ere, azaltzeko zail gertatzen zaizkigunak. Hauetako bat “errealitatea” da eta, saio asko egin badira ere, ez dut uste inork errealitatearen erabateko definizioa antzeman duenik.

Behin Bernardo Atxaga bere hitzaldietako batetan errealitateari buruz aritu zen eta benetan adierazgarria iruditu zitzaidan istorio bat kontatu zuen. Laburbilduz, hau zen berak luzatu zigun kondaira: hamairugarren mendean “nova” bat sortu omen zen, hau da, izar berri bat jaio zen, eta honelako fenomeno bat gertatzen denean zenbait egunez zeruan ditzira berezi bat egoten omen da, begiz ikus daitekeen ditzira bat. Honela bada, persiar, txinatar eta azteken astronomia liburuetan gertakizun hau jaso zen, baina ez zen gauza berbera gertatu Europako herrialdeetan. Zergatik? Garai hartan Europa aldeko astronomoek eredu aristotelikoa jarraitzen zutelako eta Aristotelesen fisikaren arabera zeruan aldaketak gertatzea ezinezkoa zelako, hots, izarrek betikoak ziren

beraien ustetan eta ez ziren ez jaiotzen ez eta desagertzen ere. Beraz, beraien aurriritzien aurka zihoan gertakizun bat zenez, bere izaera ukatu zuten.

Gure artean ere, Erdi Aroko europar astronomoetan bezala, aurriritziek garrantzi handiegia dutela uste dut. Errealitatearen ikuspegi ezberdinak egon daitezkeela onartuta ere, ezin dugu bakoitzak geure errealitate partikularra osotu. Besteen ikuspegiek agian geure errealitatearen ikuspegia zabaltzen lagun liezaguketela kontutan izan beharko genuke. Baina gure garaian nabardunentzat tokirik ez omen dago, gauzek beltz edo txuri izan behar dute, lagunak edo etsaiak aurkitzen ditugu. Zenbaitetan hori baino gehiago, sinpletasun gehiegiko formulekin jokutzen dugu: nire lagunaren laguna nire laguna izan behar da eta halaber nire etsaiaren etsaia dena ere. Bestalde, nire etsaiaren laguna etsaitzat jo behar dut nahi eta nahi ez. Eta, bitartean, ez dugu elkarrizketarako tokirik aurkitzen.

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



**Egun, Haur Eskolan parte hartzen dugunok, herriari:**

Gure gogoia da Elgoibarko Haur-Eskola Publikoa izatea. LOGSE, lege berriak, kontenplazten gaitu, baina kontraesan bat bada ere, oraindik ez gaitu subentzionatzen. Horregatik, erdi bidean gaude, Haur-Eskolaren egoera zurragoa izanik Udalaren babesean eta publikotasunerantz abiatzerakoan.

Kuotei dagokienean, nahiz eta denen helburua dohainiko Haur-Eskola publikoa izatea izan, oraindik ere kuota ordaindu beharrean gaude. Gure Haur-Eskola ez da kasu isladatu bat, Euskal Herrian denen egoera antzerakoa baita.

Kuoten ordainketa mota, zentru bakoitzeko erabakia librea izanik: errentaren deklarazioaren arabera, janari gabe... gurean konkretuki eta bataz besteko kuota izango

zelakoan, 27.000tik 23.000 pezetara jeistea erabaki genuen eta kuota lehen bezala, 10 hilabetetakoak bakarrik izatea.

Hau horrela izanda, gure baikortasuna adierazi nahi dizuegu, gauzak politik joango dira baina ERNE egongo gara LOGESEren pauso txiakiak entzuteko!

**Haur-Eskolako guraso eta langileak**

**Deba eta Urola bailaretako Gaztetxeen bilera**

Jakingo duzue, urriaren 13an Azkoiti eta Azpeitiko Gaztetxeak itxi eta prezintatu zituzten. Ez da gauza berria. Noizean behin komunikabideak hango edo hemengo partetxoren bat itxi digutela esatea beti kasu isolatu marjinal bat bezala ematen zaigu, hau da, Azpeitiko edo Bilboko Gaztetxeen itxierak loturarik izan ez

balute bezala ematen zaizkigu.

Baina, nahiz eta azken erabakia, herri bakoitzeko Udalek hartu, garbi dago itxiera guztiek lotura bat daukatela. Aurrez pentsatutako estrategia bat da. Nahiz eta Gaztetxeen gaurregungo egoera egokiena ez izan, 80. hamarkadako izpiritu berdina mantentzen dugu. Gazte moduan antolatzekeo daukagun eskubidea bideratzeko tresnarik egokiena Gaztetxea dela aldarrikatzen dugu.

Herri bakoitzak arazo ezberdinak dauzka, noski, baina ukazina da Gaztetxe guztien helburua antzerakoa dela. Lotura honetan datza gure indarra. Bestalde, gure etsaiek izugarriko aukera eta baliabideak daukate: telebista, prentsa, irratia, polizia errepresiboak, etb. Guk, ordea, geure antolaketa besterik ez daukagu.

Horregatik, bultza dezagun Gaztetxeen arteko

koordinazioa, herri bakoitzak eman dezala ahal duena, ze oso garai txarrak dira bakoitza bere kontura ibiltzeko.

Komunitate honetan, boterearen jarrera salatu nahi dugu, Ertzantzak egindako lana azpimarratuz. Ez digute ezer egiteko aukerarik ematen, manifik egurtuak izaten dira batere kupidarik gabe, kartelak berehala botatzen dituzte... Kontrolatuak sentitzen gara, aski da.

Egoera hau aztertzekeo eta koordinazio guzti hau bultzatzeko, bilera berri bat antolatu dugu azaroak 20rako, larunbata, arratsaldeko 4etan, Debako Gaztetxean. Etortzen zaretenean, posible bada herri bakoitzeko dossier bat ekartzea komeniko litzateke. Gaztetxeari buruzko bideo bat egiteko aukera ere badago. Beraz, materialea edukiz gero, ekarri. Anima zaitezte.

**Gipuzkoako Gaztetxeen Koordinadora**

**PUB**  
**LAZANTZ**  
elgoibar

**PETUNIA**  
**Modak**  
Errosario 12, tel: 74 16 48

**OINETAKOAK**  
San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 35

**IRIONDO**  
**Taberna**  
Pedro Muguruza 2. Elgoibar



AZKUE

**A**ste honetako erretratua **Jose Izagirrek** laga digu. Zein urtetan ateratakoa den ziur ziur ez jakin arren 1930. urte ingurukoa izan daitekeela esan digute. Gaztetxoek ez agian, baina nagusitxoagoek eza gutuko zuten non aterata dagoen erretratua. Maalako ospitalea zeneko ortuaren eskilaretan aterata dago, hain zuzen. Ezkerretara Gaztetxea zeneko eraikuntza dute, aurrean, ortuan landatutako aza batzuk eta, eskuma aldean, harrizko harresia. Bertan agertzen diren mutikoak Maalako eskolan zebiltzan eta argazkia misioetakoa izan daitekeela esan digute.

Ikus dezagun zeintzuk diren erretratukoak. Goitik hasita ezkerretik eskumara:

1. ilaran: **Sabin Osoro, Antonio Etxaniz, Isidoro Osoro, Don Satur Campos (apaiza), Angel Aizpitarte "Erreketa", Rafael Etxaniz eta Luis Mugerza.**

2. ilaran: **Antonio Santolaia, Fermin Arrieta, Imanol Osoro, Felipe Gabilondo, Sabin Perea "Galo" eta Florencio Osoro "Polentzi".**

3. ilaran: **Jesus Unzila, Jose Izagirre, Ramon Ezenarro eta Antonio Armendia.**



**Mandiola S.L. Egurrak**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



**Fotero**

**OKINDEGIÀ**

**OPILEDEGIÀ**

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

**garaje**

**ASTIGARRAGA**

San Frantzisko, 55. Tel. 74 01 86

- \* Ziklomotore eta motorren konponketa eta salmenta
- \* Jonsered eta Husqvarna motoserrak
- \* Desbrozadorak
- \* Neumatikoak
- \* Bizikletak

# Plaza Txikia, Euskadiko Limousinen bilgune

Larunbatean, hilak 30, Euskadiko I. "Limousin" arrazako ganadu sariketa izan zen. Limousin sariketa egiten deneko lehendabiziko aldia izan zen larunbatekoa eta edukitako arrakastagatik behintzat, badirudi ez dela azkena izango. Udalak, DEBEMENek, Kalamua Elkartek eta ELIFEk antolatutako ferian ehundaka baserritar bildu ziren Limousin arrazako abereak hurbiletik ikusteko. Plaza txikiko ganaduarekin batera, kotxe erakusketa ere egin zen. Feriaren ikusgarritasunak eta antolaketa ezin hobek, eguna ondo baino hobeto igarotzeko aukera eman zuten.



**Elgoibarren** feriak egiteko tradizioa 200 urtekoa baino zaharra goa dela kontutan izanda, Limousin Federaziokoez ez zuten zalantzarik izan Elgoibar sariketaren gune izendatzerako orduan. Goizeko 9etatik, jendeak ikusteko prest zegoen ganadua Plaza txikian muntatu zituzten aterpeetan. 10etatik aurrera ganaduaren kalifikazioa egin zen eta megafoniatik, jendeak saritutako ganaduari buruzko ezaugarriak entzuten zituen. 2etatik aurrera sari banaketa egin zen Plaza handian. Ohi denez, saritutako ganaduak Plaza txikitik Plaza handirainoko desfilea egin zuen.

Ganadua, adinaren arabera, sekzioka banatuta zegoen. Idiskoetan, sekzio bakarra egon zen eta urrixa edo emeean, 6 sekzio, eta sekzio bakoitzetik 14 bat buru. Guztira 90 abere egon zen ikusgai.

Lurralde bakoitzetik zazpi edo zortzi ganaduzale etorri ziren eta buru kopuruari dagokionean, gehienak Gipuzkoatik ekarritakoak izan ziren, 40 guztira, Bizkaitik 30 eta 20 Arabatik.

Lehiaketan ikusi ahal izan genuen ganadu guztia aurretik hautatua izan zen. Federazioko bi teknikok irizpide batzuen arabera, Euskal Herriko ganaduzale guztien artetik, ganadurik hoberena aukeratu dute.

Muga 102 burutan ezarri zuten eta sariketara etortzeko 90 buru baino ez zituzten gutxieneko baldintzak bete. Epaila lanean Frantziako Ganadu Zentruko Pascal jaunak jardun zuen.

Limousin sariketa, bi urtetik behin egiteko asmoa dute Federaziokoez, hain zuzen ere, Itsaslur txapelketa ez dagoen urtean. Agustin Irustak, nekazaritza zinegotziak, Limousin sariketa Gipuzkoan egitea tokatzen denean, hautatutako herria Elgoibar izaten ahaleginduko direla esan digu. Era berean, ganadu feriak izandako arrakasta, handia izan dela adierazi digu, "helburua, ganaduzale kopuru

ederra biltzea, alegia, erabat bete baitzen". Feria antolatzea, bi milioi t'erdia kostatu zaio Udalari.

**Limousin arraza**

Limousina, esnetarako baino, haragitarako arraza da. Hazteko arazorik gabeko eta hedapen handikoa gainera. Frantzia oso hedatua dago. Euskal Herriko orografiara oso ondo egokitzen denez, hiru lurraldeetan asko zabaltzen ari da. Limousinak ez du apenas zainketarik behar. Hori dela eta, ganaduzaleak behi kopuru handiagoa erabil dezake. Gainera, hazkuntza baldintza estensiboetara oso ongi egokitzen da eta baita mendira ere, urte osoan zehar animaliak babes natural eta jateko zaka-rekin bizi daitezkeelarik.


Euskal Limousin Federazioa arrazaren hobekuntza genetikorako plana burutzen ari da. Izan ere, momentu honetan hiru txahal jario dira enbrioien trasplantearen bitartez.

Limousina oso ugalkorra da: bataz besteko gestazio tasa %95a baino handiagoa da. Limousinak, neurri handiko haragi arrazen artean, gestazio tasarik onena dauka. Limousinak, emankorra izateaz gain,

erditze gehienak laguntzarik gabe izaten ditu. Limousin emeak txahal txiki eta ongi osaturikoak sortzen ditu, neurri handiko beste haragitarako arrazekin gurutzatuta baino 2 edo 3 kilo gutxiago pisatu ohi dute. Bi arrazoi hauengatik da Limousina errentagarria, ume-egite garaian zein ugaltze garaian oso emankorra delako, alegia. Beste arraza batekin gurutzatzerakoan, Limousinak bere ezaugarri onak transmititzen ditu. "Behi ugalkor gomendatua" izendatutako animalia batek 2-3 milioi pezeta balio ditzake.

**Gipuzkoako aizkolari txapelketa**

Arratsaldean, berriz, jai giroari jarraiki, Gipuzkoako aizkolari txapelketa ospatu zen Kiroldegian. Bertan Euskadiko aizkolaririk onenak ikusi genituen lanean : Arrospeide, Olasagasti, Peñagarikano, Muguruza, eta Erasun, hain zuzen. Ordu erdi iraun zuen txapelketan Arrospeidek gogor ekin zion enborrak mozteari hasera haseratik. Apostuak ere Arrospeideren aldekoak izan ziren. Azkenean Euskadiko txapel-dunak, Arrospeidek, enbor bateko aldea atera zion Olasagastiri.



➔ Arrospeide arin bili zen aizkorarekin.

**Gipuzkoako aizkolari txapelketa**

- 1- ARROSPIDE:** 24'55" (180.000 pta.ko saria)
- 2- OLASAGASTI:** 25'41" (140.000 pta.ko saria)
- 3- PEÑAGARIKANO:** 29'58" (130.000 pta.ko saria)
- 4- MUGURUZA:** 30'08" (120.000 pta.ko saria)
- 5- ERASUN:** 35'20" (110.000 pta.ko saria)

**Ganadu sariketako sailkapena**

**EMEAK**

- **12 hilabetetik beherakoak**
  - 1- Victor Meabe (Gujuli (Araba))
  - 2- Victor Meabe (Gujuli (Araba))
  - 3- J.M. Elgarresta (Urretxu)
- **12 hilabetetik 18ra**
  - 1- Jose Amilleta (Zumarraga)
  - 2- Jose Ramon Bereziartua (Azpeitia)
  - 3- C. Regulez (Gordexola)
- **18 hilabetetik 24ra**
  - 1- Juan Altuna (Usurbil)
  - 2- Jesus Aldalur (Tolosa)
  - 3- Jon Arruti (Beizama)

- **24 hilabetetik 36ra**
  - 1- Jesus Aldalur (Tolosa)
  - 2- A. Golzari. (Mungia)
  - 3- Carlos Ibarrondo (Elorrio)
- **36 hilabetetik 54ra**
  - 1- Jon Arruti (Beizama)
  - 2- Jorge Zubiaga (Artomaña)
  - 3- Jesus Aldalur (Tolosa)
- **54 hilabetetik gora**
  - 1- Carlos Ibarrondo (Elorrio)
  - 2- Jesus Aldalur (Tolosa)
  - 3- Carlos Ibarrondo (Elorrio)

**IDISKOAK**

- **54 hilabeetetik gora**
  - 1- J. Ajuriagerra (Zeanuri)
  - 2- Carlos Ibarrondo (Elorrio)
  - 3- Victor Meabe (Gujuli)
  - 4- Ganalar (Busturia)
- **INTELIM Sari berezia (Frantziako Limousin Elkarte)**
  - Juan Altuna (Usurbil)

# Zein arrazatako behiak hazi?

**Artikulu hau idaztean buruan daukadan ideiarik nagusiena pirenaika behi arraza defendatzearena da, noski, beste behi arrazak erabat mespretxatu gabe.**



**G**ero eta ganaduzale gehiagok,

Euskadin pirenaika arrazako behia aukeratzen du, berak baititu hazkuntzarako behi on batek dituen ezaugarri guztiak.

Bere ugaltze ezaugarriak larreetako ohakuntzetan, nahiz ikerketa erakunde ofizialetako baldintza esperimentaletan agertzen dira.

Arreta gutxiago behar duenez, gizon batek behi kopuru handiagoa erabil dezake eta horrela ganaduzalearen diru sarrerak igo daitezke. Gainera, hazkuntza baldintza estensibotara oso ongi egokitzen da eta baita mendira ere; urte osoa kanpoan pasa dezake nahiz eta eguraldi txarra egin.

Bertako arraza izanik, hemengo ingururera egokitua dago, horren ondorioz bertako klima, orografia eta gaitzetara ohituta egonik, arraza arro-

tzek dauzkaten arazo asko ebata ditzake.

Haragi produktiorako ematen dituen indizeak onargarriak dira eta indize horiek lortzeko egiten den gastua proportzionalki errentagarria egiten dute. Pirenaika arrazako behiek duten haragia, kalitate handikoa da; horren ondorioz, Euskal gizartean harrera handiko haragia da.

Azkenik, arraza hau defendatzeko ematen dudana arrazoirik nagusiena honako hau da: Euskal Herrian gelditzen zaigun behi arraza autoktono bakarra izanik, Euskal ganaduzaleek arraza hau suspertzen saiatu beharko luketela, alegia.

**Asier Rubio**



**"Bai ergela, leloa eta hanka trabesa behia horrela ibiltzeko..."**  
**"Behi euskaldun baten memoriak"**

**Bernardo Atxaga**

**G**ure baserrietan dugun behi motak bere

bukaera jasan du, joan zen mendeko erdialdera, industrializazioarekin, baserriek ere espezializaziora jo zuten arte.

Garai haietara arte gure baserria erabat autarkikoa zen, hots, etxean behar zena ekoizten zuen, soberakinak salduz. Gure arbasoek beharrak asetzeko aukerako behia nahi zuten: esnea, lana, haragia eskain zitzakeena. "Pirenaika" izenez ezagutzen dugun arraza zen nagusi eta mendi basoetan zebilen betizua, sokamuturretan eta erabiltzen den behi basatia, hain zuzen.

1905ean Gipuzkoako Foru Aldundiak "Arraza Pirenaikoaren liburu Genealogikoa" egiten du, esnearen ekoizpena ugaritu asmoz. Dena den, kanpotik ekarritako esnebehiak hartzen dute laster lehentasuna. Arraza alpinoak hartzen du indarra, bertokoa haragitarako utziz.

Gaur egun arraza fri-soia (pinttoa) da esnetarako nagusi eta lanerako badira traktoreak. Beraz, haragitarako horretan

saiatu behar.

Honako baldintza hauek izan beharko lituzke kontutan baserri-tarrak behi mota aukeratzeko: lurra nolakoa den: laua, aldapatsua... merkatuaren gustua: giharre, gizen eskabidea, behien prezioa eta errendimendua.

Arrazak berez dituen gaitasunak ezin dira ahaztu:

Emankortasuna, erditze tarteak, txahalen sendotasuna, bizitza luzapena, larre eta baso ezberdinetara egokitzeko gaitasuna, haragiaren kalitatea e.a.

Faktore asko dira, beraz, kontutan hartu beharrekoak. Zaila da hau ala hori den hobetzea esatea. Segun non eta zein baldintzatan, erantzuna ezberdina izango da. Limousin arrazak badu, gaur egun, arrakastarik gure baserriarren artean. Dena den, erosterakoan egin beharreko kostua kontutan hartzen bada ez da hain segurua bere errentagarritasuna.


**Alfonso Gonzalez**

Nekazaritza Bulegoko burua (Erredakzioan itzulia)




**E**TA ZURE USTEZ?

# Bertako ala kanpoko ganadua hazten duzu?




**Tomas Urgoitia**  
40 urte, mekanikoa

Nik neuk bertako arrazako ganadua hazten dot. Sasoi batian bertako arrazia ez zan oso ona baina orain meioratzen dao. Bertako arraza ona dabil.




**Antonio Astigarraga**  
61 urte, baserritarra

Nik bertakua. Horixe ezagutzen degu eta kanpokua, berriz, ez degu ezagutzen. Bertako ganaua daukat eta horrekin fiatzen naiz ni.




**Jose Mari Irusta**  
46 urte, baserritarra

Nik okelatako Frantziatik sartu dan arrazia sartuko neuke, limousina. Orain arte danerakua euki degu baina haragitako, kanpokua sartzia hobe.




**Manuel Garazi**  
54 urte, baserritarra

Bertakua. Ez dakit zergaitxik. Halaxe ohitu geraldako edo. Nik okelatako txahala hazten dot eta ez dot kanpoko arrazagatik aldatzia pentsatu.



**Fernando Loiola**  
34 urte, txoferra

Segun zertako dan. Guk esne behiak daukaguz baina arrazia kanpokua da. Esne behiak ez dao hemenguak, danesak, holandesak edo kanadiensiak izaten dira.



**Jose Inazio Juaristi**  
65 urte, baserritarra

Ez daukagu bertako arrazarik; mezklakua daukagu, gorrixa. Gorrixan hazixa beste gorri bati jarri eta txahal ederrak eitzen ditxu. Gustora gaude ganauakin.



*Urkizu Pasealekua, 11.  
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).  
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*

**OSASUNDEGIA**

1- Alergologia	9- Ortodontzia
2- Kardiologia	10- Otorrinolaringologia
3- Zirugia	11- Pediatria
4- Zirugia maxilo faziala	12- Sikiatria
5- Dermatologia	13- Radiologia
6- Ginekologia	14- Traumatologia
7- Laborategia	15- Urologia
8- Barne medizina	



**O I H A L A**  
*eta*  
**MERZERIA**  
Errosario 8. Tel:74 35 95



**DEBA  
GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Rosario 34, 1 ez. Elgoibar  
Tel: 74 42 83 Fax: 74 42 53

## AEK eguna 93' Arrigorriagan

“Inoiz baino indartsuago” lemapean AEK-k, AEK egunaren seigarren edizioa ospatuko du Bizkaiko Arrigorriaga herrian datorren igandean, hilak 7. Egun osoan zehar ekitaldi ezberdinak izango dira: Maskarada, herri kirolak, artisau erakusketa, bertsolariak, Egan eta Anje Duhalde kantariak... AEKren ekitaldi nagusia eguerdiko 12etan Argala enparantzan izango da.

Bertara joan nahi dutenentzat, Elgoibarko AEK euskaltegiak autobusa antolatu du 700 pezetan. Irteera goizeko 10,30etan izango da Sigmako zubitik.

## Behobia-Donostia lasterketara autobusak

Urgazi Triathloi taldeak autobusa antolatu du elgoibartarrak Behobia-Donostia lasterketa ikustera joateko. Autobusa goizeko 8,30etan irtengo da eta buelta, eguerdirako egingo da.

Izena eman nahi dutenek Polikiroldegian egin dezakete datorren osteguna, hilak 11, baino lehen.

## Aalborg Tekniske Skole-koak IMHra etorri dira bisitan

**IMHk** burutzen duen kooperazio programaren barruan, Dinamarkako ikasle eta irakasle talde bat Erraminta Makina Institutua bisitatzen izan zen pasa den astean. Aalborg herriko Tekniske Skole-ko 4 irakasleak eta 16 ikasleak materialei buruzko kurtso batean hartu dute parte eta, bertan, metalografia, gogortasuna eta erresistentziari buruzko entsaiuak egin dira.

Astean zehar Dinamarkako taldeak Danobat, Fatronik, Ayra

Durex eta Tekniker ikerketa zentrua bisitatu ditu.

Elgoibarko IMHak eta Dinamarkako eskolak zenbait alorretan elkarrekin egiten dute lan. Horregatik, datorren hilean IMHko fabrikazio mekanikoko talde batek Dinamarka bisitatu du.

Abenduan Dinamarkako beste talde bat Elgoibarren izango da eta datorren urteko maiatzean IMHko beste talde bat Dinamarkara joango da.



**LANBROA**

elgoibar

**DEKORAZIOA**

PROIEKTUAK  
ERREFORMAK  
ALTZARIAK  
OPARI GAIK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

**ANCHUSTEGUI Sa**

**ZERAMIKAK**

Erakusketa eta bulegoa:  
Antonio Arrillaga, 6-8  
behea  
83 Postakutxa  
Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
Fax 74 37 11

Biltegia:  
Arregitorre, 10 - 14 behe  
Tel. 74 20 38 - 74 23 71  
20870 - ELGOIBAR  
Gipuzkoa

# 1994 urterako zergak onartu ditu udal-plenoak

**Azaroaren** 2an zergak eztabaidatu zituen udal-plenoak. Hazienda batzordeak IPCaren igoera aplikatzea erabaki zuen zerga gehienetan. HBk, herriaren egoera ekonomiko kaxkarra kontutan harturik, zergak ez igotzea eskatu zuen. Alkatearen iritziz, egoera hau kontutan hartu da eta, horregatik, igoera gehienak IPCaren ingurukoak izan dira.

Earen iritziz, gastuak handitzen eta sarrerak gutxitzen badoaz, dirua beste nonbaitetik lortu behar da eta horretarako bide bakarra zergak dira. Talde honen ustetan zergak gehitzen ez badira herriari argi eta garbi azaldu behar zaio egoera zein den eta, adibide hau jarri zuen: "zergak ez badira igotzen, elgoibartarrok San Bartolome jairik gabe geldi gaitezke".

Udal-plenoko erabakiaren arabera, zaborbilketak %6ko igoera izango du.

Izan ere, ura eta zaborbilketaren zergak izan dira gehien igo direnak. Beste zergak IPCaren inguruko igoera izan dute: kotxeen zergak 1,3ko koefizientea izango du, eraikuntzek eta obrek 3,5koa, iharduera ekonomikoak 1,2koa e.a.

Eztabaida gogorrena ur-zergen inguruan sortu zen. Probintzia mailako Ur Patzuergoan egoteak sortarazitako igoeraren aurrean HBk bere desadostasuna azaldu zuen.

Igoera aplikatu ondoren uraren prezioak honela gelditu dira: etxeetako ura 50 pta. m3ko eta kontsumo industriale-rako ura 88 pta. m3ko. Nahiz eta %40ko igoera izan, azkenean onartu egin zen igoera EAJ, PSE eta EA taldeen baietzarekin eta HBren aurkako botuekin. Talde honek, Udalak dirua aurreztu behar zuela azpimarratu zuen eta Kirldegia ur gastuetatik bi milioitako zorra barkatu izana salatu zuen.

## “Deba Bailara Bizi-Bizirik” plataforma sortu da

Deba bailarako biztanleek Maltzaga-Urbina autopistagatik izan duten kezka dela eta, zenbait bilera egin ondoren “Deba Bailara Bizi-Bizirik” taldea sortu da, bailara babestu eta autopista edo autobiderik egitearen aurka.

Taldeak IGPen baliogarritasun demokratikoa zalantzan jartzen du, “IGPak neutralak diren arren, Administrazioak, hau da, kontratatzaileak ez du jarrera neutralik”. “Badirudi jendearen iritzia jaso baino, aurretik markatutako proiektu jakin hori legitimatzea nahi dutela”. IGPak ez direla binkulanteak diote eta hori ez zaie demokratikoa iruditzen.

Plataformak Maltzaga-Urbina ardatza, bailarako irtenbide ekonomikoa ez dela izango adierazten du. Gainera, dagoeneko, bi ardatz europar pasatzen dira Euskal Herritik (N-1 eta A8-A68 lotura Bilbotik).Finantzabidea formula onartezina iruditzen zaie, Bilbao-Behobiako peajea luzatzea, alegia, Maltzaga-Urbina ez delako errentagarria. Arrazoi hauengatik, kalteak abantailak baino gehiago direlako, taldea autopistaren aurka azaltzen da eta aurrerantzean herriz-herriko bilkurak antolatuko dituzte.



*Eskulanean saiatzen gara*

*Pastelak*  
*Tartak*  
*Izozkiak*  
*Bonboiak*

**Murumendiarrak**  
ELGOIBAR

**GOZOTEGIA**

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

**INTERIORES**

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.  
Errosario 15 Behea.

**CAFE**

**TEATRO**

**Pub PELOUSE**

San Frantzisko, 43  
Tel: 74 20 40

## Mari Karmen Azpiazu:

# “Medikuntzaren aurrerapenak transplanteen bidetik”

**Mari Carmen Azpiazuri duela lau urte giltzurruna transplantatu zioten. Sendagileak transplantea behar zuela esandakoan, argi bat piztu zitzaion, bizitza normala egiteko aukera sortu**

**baitzitzaion. Transplanteak erabat aldatu dio orain arteko bizimodua, eta, gaur egun, lau hilabetero kontrolak egin behar izan arren, “hau zerua da lehengoarekin gonbaratuz”.**

**- Duela zenbat urte egin zizuten transplantea?**

- Irailaren 28an lau urte egin nituen. Orain momentuan hiru emakume gaude Elgoibarren transplantatuta.

**- Zer sentitzen da sendagileak transplante baten beharra dagoela esaten dizunean?**

- Emozio handia izaten da. Gaisotasun horretatik irten eta bizimodu normala egiteko esperantza duzu. Urruneko argi bat bezalako da. Poz handia sentitzen da.

**- Zein izaten da gaisotasuna deklaratu eta transplantea lortu arteko prozesua?**

- Lehendabizi denboraldi bat dialisia egitera joan behar da. Transplantea egin daitekeela esan ondoren, “tipajeak” egiten dira eta orduan ikusten da emaille eta hartzaileen organuen arteko konpatibilitate portzentaia. Portzentaia horren arabera, emaillearekiko antzekotasun handiena duen gaisoak hartuko du organua.

**- Zein da transplantea lortu eta gero nabaritzen den sentzazioa?**

- Emozio handia. Transplantea ondo joaten bada oso poz handia. Hemendik aurrera bizimodu normala egin daitekeela



**“Transplantea ondo joanez gero oso poz handia sentitzen da. Hemendik aurrera bizimodu normala egin daitekeela pentsatzen duzu”.**

pentsa daiteke. Hori bai, 4 hilabetetik behin gutxi gora behera, kontrolak egin behar dira, baina 7 urtez dialisia egiten egon eta gero, hau zerua da.

**- Zer beharri erantzuteko sortu zen ALCER elkarteak?**

- ALCER elkarteak gaisoen beharrei erantzuteko, eta gaisoen arteko elkartasuna bultzatzeko sortu zen. Erakundeak badu aldizkari bat. Bertan aurrerapen medikoei buruzko informazioa, eta gaisontzako baliagarri izango

diren gauzak agertzen dira. ALCER gaisoentzat pentsioak, bidaiaren kostua e.a. kudeatzeaz ere arduratzen da.

**- Zein da jendearen erantzuna transplanteen gaiaren aurrean?**

- Oso ona. Jendearen kon-tzientziazioa gero eta handiagoa da, baina, oraindik badago erretxazoa. Emaillearen familiak azkenengo momentuan ezetz esan dezake. Emaillearen familien %18ak ezetz esaten du azken une honetan.

**- Zein motako jendea da**

**organuak ematen dituen?**

- Batez ere, jende gaztea, gero badago, 40-50 urte bitarteko jende talde bat.

**- Zein baldintza dira beharrezkoak organu emaille izateko?**

- Emailleak ezin du HIESik eduki, ez eta gaisotasun kutsakorrik ere: esaterako hepatitis. Horretaz aparte, ospitalean, transplantatzeko ateratzen diren organuetatik %1a besterik ez da aprobetxatzen.

**- Zuk zerorrek zer egin edo esango zenuke jendearen kontzientziazioa handitzeko?**

- Nik bi gauza esango nioke jendeari; batetik emaille eginez, norbere organuek beste pertsona batengan bizirik dirautela. Horrela, besteei mesede egiteaz gain, jendeak bizitzari zentzua eman diezaiolke. Bestetik, inork ezin dezake jakin, bihar edo etzi zeren beharrean izango den. Gainera, hemendik urte gutxitara aurrerapen guztiak transplanteen bidetik joango dira.

Norbaitek emaille izatea nahiko balu, farmazietan ditu txartelak. Bete ondoren, neuk jasotzen ditut. Honetaz gain, jendeari aldeztu aurretik eskerrak eman nahi dizkiot.

Nerea Lodoso

## **Mari Jose Aranbarri**

*Uzuri optikakoa*



- **Noiz hasi zinen Optikan lanean?**
- Duela hiru urte t´erdi, gutxi gora behera.
- **Betaurrekoak ala lentilak?**
- Betaurrekoak, baina lentilekin ere jendea oso gustura ibiltzen da.
- **Gidatzeko, eguzkitako betaurrekoak ala betaurrekorik gabe?**
- Protekzioko betaurrekoak badira, betaurrekoak, noski.
- **Kotxea ala motorra?** - Kotxea.
- **Katalejoak ala prismetikoak?** - Prismetikoak.
- **Zineko pelikula bat ala bideo bat?** - Bideo pelikula bat, zinemara joateko astirik ez bait daukat.
- **Zein izan da ikusi duzun azken filmea?** - "Kick Boxer I eta II".
- **Eguna ala gaua?** - Eguna.
- **Ile luzea ala motza?** - Behin eduki det ile motza, baina nahiago det luzea.
- **Zein adinetako jendea joaten da gehienbat optikara?**
- Jende gaztea zein nagusia, baina orokorrean beharra sentitzen duen edonor.
- **Maitasuna itsua al da?** - Baietz uste dut.
- **Nora joango zinateke oporretara?** - Hawaira gustatuko litzaidake joatea, baina ez daukat denborarik.
- **Kolore bat?** - Beltza.
- **Dantzan solte ala helduta?** - Trikitixa bada solte baina bestela, helduta.
- **Ze prezio dute betaurreko garestienek eta merkeenek?**
- Garestienek 80.000 pezeta eta merkeenek 2.550 pezeta.
- **Haur bati betaurrekoak ala lentilak jarriko zenizkioke?**
- 13 urte arte betaurrekoak eta hortik aurrera, lentilak. Garbitzen, aldatzen e.a. moldatzen bada lentilak, berak nahi izanez gero.
- **Mendia ala hondartza?** - Mendia, osasunerako ona delako.

Maite Iriondo

## **BERTSOTAN**

### **DOMUSANTUKO FERIA**

**Doinua:** Imanolen "Mendian gora haritza"

Domu Santuko feria  
ez zen izan aberia  
larunbateko mugimendua  
genuen handia

Limousin sariketia  
aizkolarien tartia  
ongi beteta bene benetan  
zen larunbatia (BIS)

Goizean zen sariketa  
kiroldegia beteta  
Limousin behien arraza hortan  
sari banaketa

Arratsalde lehiaketa  
Gipuzkoko txapelketa  
larunbateko ekitaldiez  
kexatzerik ezta. (BIS)

Arnaitz Gorriti

**TIRO RIRO**



San Frantzisko, 54. 74 13 86



**karkizano**

San Frantzisko 12-14, Tel. 74 05 49

*Arrieta*  
*modak*

San Bartolome 18  
74 08 49

**ELENA**

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89

## DV eskupilota txapelketa jokatu da igandean

Igande honetan, hilak 7, DV afizionatuentzako eskupilota txapelketa jokatu da Ikastolako frontoian. Urien-Pradera bikote bizkaitarrak Errioxako Arroyo-Dani bikotearen aurka jokatu du eguerdiko 12etan. ETB-1ek zuzenean emango du partidua. Emanaldia baino ordulaurren lehenago, ETBk gure herriko frontoietan grabatutako irudiak emango ditu. Txapelketaren aurretik, 11,15etan, "Lagunak" pilota eskolako infantil mailako Garate-Karmel elgoibartarrek Heriz-Arrieta Plaentxiko bikotearen aurka jokatu dute eskupilkota partidua.

## Mintxetak badu telefonoa

Datorren astetik aurrera, funtzionatzen hasiko da Mintxetara deitu ahal izateko telefonoa. Telefono zenbakia 74 43 15 izango da. Era berean, Mintxetako instalazioen ardura Reyes Mellado elgoibartarrari eman zaio, aukeztutako eskabide guztien artetik, berea izan baitzen gestio eta baliabideen antolaketa eta deskripziorik zuzenena egin zuena.

Bestalde, aldagela eta dutxak erabiltzeko karnet bat egiteko aukera izango du erabiltzaileak. Orain arte, dutxa edo aldagela erabiltzeagatik 200 pezeta nagusiek eta 100 hurrek ordaindu behar izaten zuten. Karneta eginez gero, 2.000 pezeta nagusiek eta 1.000 pezeta hurrek ordaindu beharko dute eta urte guztirako balio izango du. Kirol klubetako bazkideei dohainik emango zaie karneta.



Ana Raña:

## "Nesken eskubaloiak laguntza gutxi du"

- **Nola sortu zen Elgoibarko nesken eskubaloi taldea?** - Neska batzuk ekipo bat sortzeko mugitzen hasi ziren eta bilera bat antolatu zuten. Bilerara lehenago ere jokatzeko aritu izan ginen jende pilo bat bildu ginen eta baita Elgoibarko Eskubaloi Kirol Elkarteak ere. Horrela uda aurretik zertxobait entrenatzen hasi ginen, uda ondoren pretenporadarekin hasteko.

- **Zer moduz hasi duzue liga?** - Momentuz nahiko flojo, baina normala dela uste dut. Gehienok denbora asko daramagu jokatu gabe eta gure artean konpenetratu beharra daukagu, baina poliki poliki bagoaz aurrera.

- **Noiz hasi zinen eskubaloiari?** - Konpetizioan, duela 7 urte gutxi gorabehera Eibarko Amaña ekipoan. Gero, duela urte bete pasa, utzi egin behar izan nuen lanagatik eta orain berriro.

- **Nola hasi zinen Eibarko ekipoan?** - Joku eskolarretan jokatzeko guren garai hartan. Eibarren nesken eskubaloi klub bat zegoen, Amaña, eta zenbait bertako ekipoira joan gintezen deitu gintuzten.

- **Hainbeste urtetan lesiorik?**

- Bai. Entrenamentu batean jausi eta meniskoa eta aurreko ligamentu kruzatuak apurtu nituen. Urte bete jolastu gabe egon nintzen. Gero beldurra izaten da txa-



rrena, badakizu, berriz min hartzeko beldurra.

- **Zer ezaugarri izan behar ditu, zure ustez, eskubaloiko jokalaririk on batek?** - Gorputz sendoa bat, altura badauka hobeto, jokaldia ikusteko bista piskat, forma fisikoa, indarra, ...

- **Horietatik zeintzuk falta zaizkizu?** - Agian, bista eta azkartasun piska bat.

- **Urte guzti hauetan momentu on eta txar ugari...** - Bai, baina batez ere onak, ezagututako jendearekin pasatutako momentuak bati-pati. Ekipo on batean jokatzeko aukera izan dut eta asko irtetzen ginen kanpora. Bidaietan oso ondo pasatzen genuen. Oso garrantzitsua da ekipoaren kideak elkarrekin ondo konpontzea. Txarrena, laguntza eza da. Nesken eskubaloiak laguntza oso gutxi jasotzen du.

- Adina: 22.
- Lateralean jokatu ez bazenu? Agian zentrala.
- Irabazi ala ondo jokatu? Biak.
- Izango zinateke arbitro? Ez.

**HISPANIA**  **ZURICH**

**C. Romera**

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar.

Tel: 74 07 52 - 74 29 08

**GURBIL** *Jatetxea*



- Pintxoak - Eguneroko menua  
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar



**URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA**



Futbito Txapelketak duen arazoetariko bat baloiei dagokiona da. Partiduak jokatzeko erabiltzen diren baloiak ez dira jokalarien gustukoak, gogorak eta pisutsuak gertatzen bait dira. Baina argi utzi behar da arazoaren errua ez dutela antolatzaileek. Izan ere, iazko txapelketan gauza bera gertatu zen, utzi egin bait zitzaion betidanik erabiltzen ziren baloiekin, “Mikasa” zaharrekin, jokatzeari. Baina zergatik aldatu ziren baloiak, jendeak gustura jokatzen bazuen baloi zahar haiekin? Erantzuna erraza da. “Mikasa” etxeak ez ditu dagoeneko baloi zahar haiek egiten, errentagarri ez dutelako ikusten edo. Egoera honen aurrean antolatzaileak baloi egoki baten bila aritu baziren ere, ez zuten lortu aurrekoa bezain egokia izango zen bat. Beraz, arazoan konponketa ez da erreza eta ez du ematen epe motz batean konpon daitekeenik. Hala ere, eta antolatzaile batek adierazi digunez, ez dute etsitzen eta momenturen batean “Mikasa” zaharraren antzeko bat topatuz gero ez da inolako zalantzarik egongo hauek erosteko.

**SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA**

<b>A Taldea</b>	PARTIDUAK				Puntuak
	Jokt.	Irab.	Berd.	Gal.	Guzt.
1. MIMOX	2	2	0	0	4
2. KARKIS	2	2	0	0	4
3. KOSAKOS	2	2	0	0	4
4. CHELSEA	2	2	0	0	4
5. ARROAK	2	2	0	0	4
6. LANBROA	2	1	0	1	2
7. XIRULA	2	0	1	1	1
8. RESTO DEL MUNDO	2	0	1	1	1
9. HUNDE VERBOTEN	2	0	0	2	0
10. PEDRUSKO	2	0	0	2	0
11. BERROGEI DURO	2	0	0	2	0
12. ORAIKO CAFE	2	0	0	2	0

<b>B Taldea</b>	PARTIDUAK				Puntuak
	Jokt.	Irab.	Berd.	Gal.	Guzt.
1. TXIRRISTAKA	2	2	0	0	4
2. G. GARCIA	2	2	0	0	4
3. BAR ROKE	2	2	0	0	4
4. LAGUN TOKI	2	2	1	0	3
5. DINAMO KALIMOTXO	2	1	0	1	2
6. AMETSA	2	1	0	1	2
7. KING-KONG.	2	1	0	1	2
8. SPORTING	2	1	0	1	2
9. LUCKY LUKE	2	0	1	1	1
10. GORRI BELTZ	2	0	0	2	0
11. ALDAVAS	2	0	0	2	0
12. UNIV. DE CHILE	2	0	0	2	0

**G** **TALDERIK GOLEGILEENA**  
Mimox (28 gol)  
Karkis (19 gol)  
Kosakos (17 gol)

**L** **GOL GUTXIEN JASO DUEN TALDEA**  
Mimox (0 gol)  
Chelsea (1 gol)

**A** **GOLEGILERIK ONENA**  
Mancebo (Mimox) 10 gol  
Alonso (Lagun Toki) 9gol

**K**

**D** **\*\*\* AZAROAK 7 \*\*\***  
10:00 Kosakos - Hunde verboten Chelsea - Mimox  
11:00 Xirula - Berrogei duro Arroak - Lambroa  
12:00 Oraiko cafe - Resto del mundo Karkis - Pedrusko

**A** **\*\*\* AZAROAK 14 \*\*\***  
10:00 Aldavas - Univ. de Chile Sporting - Txirristaka  
11:00 Lagun Toki - Dinamo Kalimotxo G. Garcia - King- Kong  
12:00 Ametsa - Lucky Luke Bar Roke - Gorri beltz

**T** **\*\*\* AZAROAK 21 \*\*\***  
10:00 Lanbroa - Karkis Oraiko cafe - Chelsea  
11:00 Pedrusko - Kosakos Hunde verboten - Xirula  
12:00 Resto del Mundo - Berrogei duro Mimox - Arroak

**O** **\*\*\* AZAROAK 23 \*\*\***  
10:00 King-Kong - Bar Roke Ametsa - Sporting  
11:00 Gorri beltz - Aldavas Univ. de Chile - Lagun toki  
12:00 Lucky Luke - Dinamo Kalimotxo Txirristaka - G. Garcia

**Z** **PARTIDUAK**



## Musikeskola: musika zaletasuna pizten

Inazio

Bereziartua

Musikeskolak 10 urte beteko ditu datorren urtean. Haseran, oinarrizko Musika Kontserbatorio bezala sortu zen. Orduan musika adar ezagunenak bakarrik irakasten ziren eta gaur egun, berriz, ia instrumentu guztiak eta musika ikasgai guztiak irakasten dira.



AZKUE

→ Santa Zezilia egunean, Gabonetan, martxoan eta kurtso bukaeran ematen dituzte kontzertuak.

### Herrietako

Musika Kontserbatorioak sortu aurretik, haurrek irakasle partikularrekin eta Musika Bandakoekin ikasten zuten musika. Eusko Jaurlaritzak kontserbatorioak sortzeko baldintzak plazaratu zituen orduan. Oinarrizkoenak, 200 ikasle izatea, irakaslego tituluduna kontratatzea eta gutxienez, korda, haize eta piano eta solfeo irakaslea izatea ziren. Felix Lodosoren inizatibaz, guraso talde bat bildu eta kontserbatorio bat egiteko proiektua sortu zen. Honela, Cecilia Urain, Flori Ortiz de Villalba, Felix Lodoso, Manuel Santos, Jose Luisa Huergo, Maribel Elkoro-berezibar, Ines Unzilla, Mari Jose Zubiaurre eta Maribi Agirregomezkorta elgoibartarrek eskola guztiak bisitatu ondoren, lehen kontserbatoriorako beharrezkoak ziren 200 ikasleak lortu zituzten. Diru arazo izugarriekin,

kreditu pertsonalak eskatu behar izan zituzten, aurrera egin zuen Musika Kontserbatorioak. Garai hartan, ohizko ikasketen alternatiba gisa planteatu ziren musika ikasketak. Helburua lortu zela esan daiteke. Kontserbatoriotik pasa diren batzuk goi titulua lortu dute, beste batzuk rock taldeak sortu dituzte;

### Musikeskola audiotorium-a lehenbaitlehen eraikiko duten esperantzaz dago.

kontserbatorio barruan hirukoteak eta bertako orkestra sortu dira eta etorkizunari begira haurren banda bat sortzea gustuko litzaieke. Elgoibarko Musika Bandako gazte

gehienak ere Kontserbatorio-riko ikasle izan dira noiz-bait.

Dena den, musika klasikoak daukan kutsu aspergarri hori jendearen buruetatik kentzea oso zaila omen da. Musikari onak ekarri izan dira herri- baina jendearen aldetik erantzuna oso kaxkarra izan da beti.

1990. urtean Musika Kontserbatorioa zentru ofizial bihurtu zen eta urtebete beranduago maila ertaina lortu zuen. Gaur egun bailarako maila ertaineko zentru bakarra da eta kanpoko jendea bertara etortzen da. LOGSEk ere izan du eraginik musikaren arloan. Pixkanaka, kontserbatorioa desager- tzen joango da eta Musikeskola bihurtzen. Musika beste edozein karrera bezala izango da eta musikeskoletan ikasleak maila ertaineko zentruetan sar- tzeke prestatuko dituzte.

Gaur egun hiru arlotan banatuta dago eskaintza: korala, dantza eta instrumentua. Haurrak 6 urtetatik hasten dira ikasten, eta solfeoa ez da derrigorrezkoa. Guztira 22 irakasle daude, 470 ikasle, junta erretore bat, presidente bat, zuzendaria eta administraria. Egun, Musikeskolak duen arazorik nagusia lokalak sakabanatuta edukitzearena da. Horregatik, audiotorium-a lehenbaitlehen eraikiko duten esperantzaz daude.

#### FITXA TEKNIKOA

**Sorrera urtea:** 1984

**Presidentea:**

Manuel Santos

**Zuzendaria:**

Joseba Garmendia

**Ikasle kopurua:** 470

**Urteko kontzertuak:** 9

**Helbidea:**

Aita Agirre Plaza



# Txillidarrak ezik, grabatzaile guztiak izan ziren erakusketaren aurkezpenean

Grabatzaileen erakusketa bikain hau osatzen duten zortzi artisten artetik, Txillida anaiak eta semea ezik, beste sei artistak Elgoibarko Kultur Etxean izan ziren erakusketaren inaugurazio ekintza ofizialean.



Erakusketak ikusmin handia sortu du.

**Protokolorik** eza izan zen ia ordubete beranduago hasi zen inaugurazio ekitaldiaren ezaugarri nagusia. Udalaren ordezkaria, Blanka Salegi Kultur teknikaria izan zen, Egur lantegiaren izenean Pedro Azpiazu egon zen eta, Fernando Beorlegi grabatzaileak aurkezpena egin zuen.

Inaugurazioan J.L. Baroja Collet, Fernando Beorlegi, Javier Herreros, Gabriel Ramos Uranga eta Iñaki Ruiz de Eginio izan ziren. Hauekin batera Rafael Castellanos idazle ezaguna ere bertan izan zen. Txillida anaiek eta

Eduardo Txillidaren semeak, Pedro Txillidak, ez zuten inaugurazioan egotarik izan.

Erakusketak ikusmin handia sortu du, Euskal Herriko grabatzaileak erakusketa bakar batean bilduta baitaude. Anekdotak gisa aipatu, bertan ikus daitezkeen zenbait lanek, milioi t'erdia pezetako balioa dutela.

Erakusketa zabalik egongo da datorren hilaren 14ra arte eta ordutegia, arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean izango da astegunetan, eta 12etatik 2etara jaiegunetan.

## Haritz Dantzari Taldea Getxon

Haritz Dantzari Taldea eta Udal Txistulari Taldea Getxoko Fadura kiroldegian izango dira datorren larunbatean, hilak 6, gaueko 10,30etan. Gure herriko dantzari eta txistulariek Alakiketaren dantza ikuskitzean parte hartuko dute Jose Antonio Urbeltzen zuzendaritzapean eta Donostiako Argia, Añorgako Arkaitz eta Iparraldeko Lapurtarrak taldeekin.

Igandean, berriz, hilak 7, Udal Txistulari Taldeak, Oñatiko Udalak gonbidatuta, txistularien kontzertu nagusia parte hartuko du.

## Itxaropena abesbatzaren kontzertua Lasarten


Itxaropena abesbatzak, Nerea Ugarteren zuzendaritzapean, kontzertu bat emango du larunbatean, hilak 6, Lasarteko Kultur Etxean. Guztira 15 kantu abestuko dituzte, klasikoak zein modernoak.

**ASESORIA  
GOIR**

**AHOLKULARITZA**

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUA
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUA

San Bartolome 1 behe. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29



**MEKANOSA**

Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX
- ★ ZERBITZU INFORMATIKOA

**Kide**  
**leapaindegi**

**HELVIDE BERRIA: San Frantzisko 19, 1 esk. ☎ 74 00 69**

**6** *Larunbata*

**11,00** SOZIOLINGUISTIKA  
IKASTAROA

3. saioa  
Tokia: Kultur Etxea  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

**16,00** E.I.L.T. BILERA

Irrati Zaletu Elkarte  
Tokia: Kultur Etxea

**16,00** FUTBOLA

Futbol Bilbao-Eibartarrak (neskak)  
Tokia: Mintxeta

**17,00** AUTOBUSA  
GAZTETXEEN ALDEKO  
MANIFESTAZIORAKO

Irteera tokia: Maala  
Manifestazioa Bergaran da.  
Antolatzailea: Elgoibarko Gazte  
Asanblada

**19,00** ZINEA

"El último gran héroe"  
Zuzendaria: Jhon Mc Tiernan  
Aktoreak: Arnold Schwarzenegger,  
Danny Madigan.  
Tokia: Udaleko biltzar aretoa.  
Antolatzailea: Ongarri zine Kluba.

**7** *Igandea*

**11,30** ESKUPILOTA JAIALDIA

Infantilak  
Tokia: Ikastolako frontoia  
Antolatzailea: Lagunak Pilota  
Eskola

**12,00** DV PILOTA TXAPELKETA

Tokia: Ikastolako frontoia  
Antolatzailea: Lagunak Pilota  
Eskola

**ETB-1ek zuzenean emango du.**  
Sarrera: Doan.

**16,00** FUTBOLA

C.D. Elgoibar-Eibar (kadeteak)  
Tokia: Mintxeta

**17,00 eta 19,30** ZINEA

"El último gran héroe"  
Tokia: Udaleko biltzar aretoa.  
Antolatzailea: Ongarri zine Kluba.

**10** *Asteazkena*

**19,00** BASOGINTZA  
ELKARTEAREN BILERA

Tokia: Kultur Etxea

**11** *Osteguna*

**19,00** ELKARRI-REN HITZALDIA

Hizlaria: Jonan Fernandez  
Tokia: Kultur Etxea

**Z I N E A**

**"El último gran héroe"**

Danny Madigan, 11 urteko mutikoa, zinera joaten da sarrera majiko batekin eta pantaila barrura sartzea lortzen du. Mutikoak Jack Slater superheroiaren fikziozko mundua ezagutuko du. Mundu honetan den dena posible dela ikusten du. Dannyk pelikula batean dagoenaz superheroiak konbentzitzen duenean, honen etsaiak sarrera majikoa kenduko diote mutikoari. Etsaiek mundu errelera ihes egingo dute eta superheroiak pantaila zeharkatuko du bere etsaiak harrapatzeko.

**Z I N E A**

**Artegi LEHIAKETA**

**AZAROKO GALDERA:** Elgoibarko Elkarte ezagun batek bere 50. urteurrena ospatzen du aurten. Ba al dakizu zein elkarteri buruz ari garen?.....

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA..... TEL.....

Azaroak 29an **SAMSUNG** Mikrouhin labe bat zozketatuko dugu zuzen erantzuten duzenon artean. (Anima zaitetze eta ekarri erantzuna **BARRE**Nera. Nafarroa enparantza 2.)

## Etxebizitzak

Bi gela eskeintzen ditut. Lo eta erropak garbitu. **Tel. 74 09 44**

Etxe bat salduko nuke. 100 m2 eta gela guztiak kanpora ematen dute. Urasandin. **74 42 65 Amaia**

Etxe bat alokatuko nuke Elgoibarren. **74 41 12 Nekane**

## Lana

Frantseseko klaseak ematen ditut maila guztietan, Frantsesa naiz eta titulua dut. Emakumeekin mintzamen lantzeko talde bat sortu nahi nuke arratsaldeko 3etatik - 5etara bitartean. **74 04 59**

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak egiteko prest nago. **Ainhoa 74 16 89**

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientziaduna eta Eibarko erresidentzian hilabeteko praktikak egin ditut. **74 23 30 Elena**

Marrazketa Teknikoan arazoak baldin badituzu klase partikularak emateko prest nago. EFP eta BTIko ikasleei. **Deitu 12:30etatik 2:30etara 74 04 69 zenbakira**

Haur bat zaintzeko prest nago. **Lorea 74 28 53**

Etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. **74 05 34**

O.H.O.ko klase partikularak emateko prest nago. Euskeraz badakit. **Ainhoa 74 36 39 - 74 05 33**

## Salerosketak

Anayak etxean garaje bat alokatzen da. Bi kotxerentzat. "Altillua" du. Almazenerako aproposa. **74 42 26**

Batzoki parean garaje bat alokatzen dut. Prezio merkea. **74 42 83**

Botadun patin pare bat saltzen dut. Paraleluak. 36 zenbakia. **Koldo: 74 12 85**

San Antolin auzoan, taberna ondoan, lokala daukat alokatzeko. **Tel.:74 17 95**

Sukaldeko altzariak salgai. XEY markakoak. Erabili gabeak. Prezio ezinhobea. **Amaia Tel.:74 09 23**

Bigarren eskuko kotxe bat erosiko nuke. Citroen C 15 furgoneta edo antzeko zerbait. Diesela. **Deitu: 74 36 34**

Kawasaki GPZ 500 S SS-AJ 10.000 km. **Tel. 74 28 32**

San Roke bailaran terreno batzuk salgai ditugu. **74 39 89 Rufina**

Bi bizikleta BH tolesgarriak saltzen ditut. 16.000 pta biak. **74 04 59**

Ford fiesta XR 2 salgai. SS-558I-V. Oso ondo zainduta. **Deitu 74 13 46**

Karrerarako bizikleta bat salgai. Berri-berria. "Mendiz" markakoa. **Tel. 74 10 93**

Musika ekipo bat saltzen dut. Irratia, ekualizadorea, pletina bat eta tokadiskoa. 25.000 pta. **Deitu 74 03 55 Iñigo**

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari: 74 21 35 / 22 10**

## Kontaktuarak

Tarta bat betetzeko limoizko krema nola egiten den jakin nahi nuke. Idatzi aldizkarira edo bestela deitu telefonoz **74 02 90 Agapita**. Mila esker.

## URRIAN

### Ezkondutakoak

- Frantzisko Javier Isasti Urain eta Arantzazu Huidobro Torinos (Urriak 2)
- Ibon Ormaetxea Iramategi eta Nieves Arrieta Revuelta (Urriak 9)
- Candido Galindo Muñoz eta Mari Cruz Ramal Olmedo (Urriak 11)

### Hildakoak

- Celestino Belaustegi Barrenetxea (Urriak 4)
- Purificación Mazorriaga Agirre (Urriak 5)
- Casto Agirregomezkorta Ibarluzea (Urriak 28)

### Jaiotakoak

- Cristian Gala Ruiz (urriak 5)
- Beatriz Alvarez Gallardo (urriak 11)
- Asier Gonzalez Miguel (urriak 21)
- Javier Sarasua Tomas (urriak 21)

*Eskela, eskertza eta urteurrenentzako espazioa daukazu BARRENen.*

*Deitu asteazkenak baino lehen 74 41 12 telefonora.*

**usoa**

KAFETEGIA



Santa Ana, 6. Tel. 74 25 20

**AITZ BIZKAR ARDOAK**

ARDO ETA PATTARRA PATATA SALMENTA

**Etixerainoko banaketa**

Errosario 18  
74 02 37



**Eguneroko errealdia**

San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39



**GARAY**



San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

# SEAT TOLEDO



**Orain SEAT TOLEDOk merkatuko baldintzarik hoberenak eskaintzen dizkizu**

Ez uko egin ezeri. TOLEDOak aparteko prestakuntzak eta puntako teknologiak duen kontsumoa eskaintzen dizu. Dena zure neurrirako ekipamenduarekin:

- ABS freno sistema.
- Direkzio lagundua.
- Aire egokitua.
- Leiho igogailu elektrikoak.

Kotxe eder bat oso prezio onean. Ekonomiaz disfruta dezazun. Aldatu kotxea. Ez bizimodua.

Nahiago baduzu, FISEATEk eskaintzen dizun ordainketa era aprobeatza dezakezu.

**SEAT**  
*Bai*

**Eibar Motor, S.A.** Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42. EIBAR